

Zenbaki monografikorako deialdia

# Kognizioa musika hezkuntzan

*IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria*



ISSN: 1988-5911

Aurkezteko epea: 2024ko irailaren 15ean

Onarpenaren jakinarazpena: 2025eko urtarrilaren 15ean

Argitaratze data: 2025eko martxoaren 15ean

Koordinazioa: Ana Laucirica dk. (NUP) [laucirica@unavarra.es](mailto:laucirica@unavarra.es)

## Kognizioa musika hezkuntzan

Musika Hezkuntzak heziketa esparru askotan agerpena dauka haurtzarotik zahartzarora, irakaskuntza orokorrean eta espezializatuan, irakaskuntza formalean eta informalean. Planteatzen dituen helburuak oso desberdinak dira eta, beraz, garatzen den heziketa esparru bakoitzean eskaera mailak oso desberdinak bilatzen ditu.

Hezkuntza arau espezifikoaren eta ikasleen eta irakasleen praktika zehatzen arabera hezkuntza sistemak desberdintzen direnez, kokapen geografikoa ere erabakigarria da. Musika Hezkuntzaren ikerketak musika diziplina, besteak beste, pedagogiarekin, soziologiarekin, psikologiarekin edo medikuntzarekin batzen duen ikuspuntu askotarikoak hartzen ditu.

Monografiko honek psikologia kognitibotik musika hezkuntzarentzat ekarpenak ekartzen dituzten lan empirikoak hartu nahi du.

Musikaren psikologiaren esparruan psikologia kognitiboak heltzen die arretari, pertzepzioari, memoriari, ikaskuntzari, mintzairari, trebetasunei eta musika pentsamendu orokorrari. Espezialitate honi buruz dagoen zientzia ekoizpen ugariak eredu teoriko eta metodologiko sendoekin ekarpen berriak sortzen uzten du.

